



3, 2, 1 Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketa

FORMA ESZENIKO BERRIEN NAZIOARTEKO TOPAKETAREN EDIZIO BERRI BAT HASI DA ALHÓNDIGABILBAON

- AlhóndigaBilbaon egingo den topaketa honetako bigarren edizioa izango da. Bertan, munduko adierazpen ezberdinetako eszena sortzaile garaikideek parte hartuko dute hiru edizioetan: 3 (2013), 2 (2014), 1 (2015).
- Frantzia, Austria, Quebec, Korea, Suitza, Alemania, Italia edo Portugaletik etorritako artistek parte hartuko dute.
- ‘3, 2, 1’ topaketa sortzaile hasiberri zein ospetsuak batzen dituen foroa da. Bertan, performance, dantza eta egungo antzerkiaren kontzeptu berrikusia aurkeztuko dute.
- Gaurtik maiatzaren 31ra AlhóndigaBilbao ikuskizun kolektiboen, idatzizko lanen eta planteamendu artistiko berrien agertokia izango da. Performance, antzerkia, dantza, instalazioak, espazio publikoetako interbentzioak edo arkitektura suntsikorra bezalako kontzeptuek ikusleak protagonistak diren topaketa honetan parte hartuko dute.
- Nazioarteko sorkuntza eremu honetan, AlhóndigaBilbaok, modu paraleloan MOV-S proiektua hartuko du, Bartzelonako Mercat de les Florsen ekimena hartuko du. Bertan artisten eta dantza eta mugimenduko artearen antolatzaileen arteko elkartzeko eta lankidetzako bideak bultzatzen dira. Topaketa honek Eusko Jaurlaritzaren, Etxepare Institutuaren eta Acción Social Españolaren laguntza du.



Bilbo, 2014ko maiatzaren 26a. Gaur 3,2,1 Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketa hasi da AlhóndigaBilbaon. 3 edizio izango dituen programa honek, aurreko urtean hasi zen eta datorren urtean amaituko da. **Maiatzaren 31ra arte, performancea, dantza eta egungo antzerkia berrikusiko dituzten hainbat proposamen artistiko elkartuko dira.** Hiru disziplina hauek elkarrekin eta gai, kontzeptu eta sinergia ezberdinak planteatzen dituzten beste arte mota ezberdinekin erlazionatzen dira.

3,2,1 Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketan, ikuspegi eta jatorri ezberdinetako sortzaileek, gune berean kontzeptu arrunten berrikusketak eta ikuspegiak aurkeztuko dituzte. Zuzeneko eta orokorreko arteari buruzko ikuspegiak ezagutuko dira publikoak behin bakarrik ikus/bizi dezaketen momentu bakarreko esperientzia gisa.

Probatzean, berritzean, kritikoa izatean, aurkeztean eta irudikatzean datza. Sortzaile hasiberri zein ospetsuek ez-konbentzionalari buruz dituzten proposamenak egingo dituzte. Ikuskizun kolektiboak, idatzizko lanak, hamar minutuko proposamen artistikoak... daude. Live art, performance, antzerki, dantza, instalazio, espazio publikoetako esku-hartze eta arkitektura efimeroko kontzeptuek forma hartuko dute ikuslea benetako protagonista den topaketa honetan.

Bigarren edizio honetan artisten hautaketa bat biltzen du, eta haien adierazpen artistikoekin lurreko gaiak zein estetikoak gainditzen dituzte. **Frantzia, Austria, Portugal, Suitza, Korea edo Quebec-etik etorritako artistek parte hartuko dute. Edizio honetan lekuko artisten presentzia nabarmena izango da, Munduate, Blanca Calvo, Xabier Erkizia eta Ainara Legardón, Elsie Ansareo, Maria Ibarretxe eta Alaitz Arenzana, besteak beste.**



3,2,1 AlhóndigaBilbaoren Zuzeneko Arteen programazioaren barruan dago. Edukia topaketatik harago doa, adierazpide desberdinetako sorkuntza eszenikoaren inguruko dibertsitate eta lengoaiei ekiteko 2010. urtean zentroa ireki zenetik garatu izan den programazio egonkor baten bitartez.

Aurreko edizioan, **6.000 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten. Nabarmentzekoa izan zen espainiar eta europar programatzaileen presentzia.**

Eszenatoki ezberdinak

3, 2, 1, Topaketa AlhóndigaBilbaoko hainbat guneetan izango da. Horrela, Kulturen Ataria, Auditoriuma, Bastida Aretoa, Laborategi Aretoa, Erakusketa Aretoa, JOZa... izango dira izaera artistiko ezberdinen agertokia hurrengo egunetan.

Honez gain, **hainbat gunetan hitzordu ibiltariak egongo dira, esaterako, Xabier Erkiziak eta Ainara LeGardonek proposatzen dituztenak: zentroa itxita egonda, 'Soinu-paseoa. Isiltasunaren forma berriak' lelopean izango den ibilbidea. Baita hainbat guneetatik igaroko den Marie-Caroline Hominalek prestatutako dantza performancea. Ikusle bakar batentzako izango dena, 20 minuturo, maiatzaren 30 eta 31an.**

Kulturen ataria

Maiatzaren 29, 30 eta 31an **Kulturen atariak 'Polifemoren begia' hartuko du, Plastique Fantastiquerren (Alemania-Italia) proiektu kolektiboa eta AlhóndigaBilbaoren ekoizpena. Ataria Ziklopearen haitzulo bihurtzen du, eta bisitariak, bidaiari galduetan. 'Ecoute pour voir' dantza esperientzialak zenbait solo proposatzen ditu, espazioan barrena eta aldi berean**



dantzatzekoak. iPod bati lotutako entzungailuak jantzita, dantzariak eta ikusleak koreografia bat partekatzen dute, aurrez aurre, musikak irauten duen bitartean.

Maiatzaren 29an, **'Pilze' performancearekin, YoungSoon Cho Jaquetek parte hartzeko gonbita egiten dio ikusleari**: ukitzeko, sentitzeko, entzuteko eta hainbat eta hainbat objektuekin elkarreraginean jarduteko gonbita, ordena berri eta ezezagunak sortzeari begira. Bertan, baina egun bat geroago, **Alessandro Sciarroniren 'Untitled_ I will be there when you die'** dantzaren atal bat izango da.

Atariko ikuskizun guztiak sarrera librean izango dute.

Auditoriuma eta erakusketa aretoa

'BAT' lanean, **Marie-Caroline Hominal**-ek kolokan jartzen ditu kamuflatzearekin, eraldaketarekin eta anonimatuekin loturiko zenbait prozesu. Agertokian, boxeolari batek kontrapuntua egiten dio. Maiatzaren 29an izango da erakusketa aretoan.

Maiatzaren 30ean **'Atlas Bilbao'** izeneko performancea egingo da Auditoriumean. Ikuskizunak lanbide desberdinetako 100 pertsona biltzen ditu agertoki gainean. Bertan euren lanbideak, zaletasunak eta hiriengan duten ikuspegia azalduko dute. Performancea aurretik antolatutako tailer baten pate hartu zuten boluntarioekin antolatu da AlhóndigaBilbaok harpidedunei egindako deialdiari esker.

Cindy Van Ackerrek 2 pieza aurkeztuko ditu, eta bien aukeraketak 3.2.1 topaketaren lan-ildoarekin dauka zerikusia. Helder aurkeztuko du erakusketa-



gune batean (zuria) eta **Monoloog** gune eszeniko batean (beltza). Mugimendua ulertzeko bi era.

Maiatzaren 30 eta 31an, **Jordi Galík** ikuskizun bisual eta dantza ikuskizuna proposatzen dizkigu. Objektuen arima azalera ateratzen du, direnik eta objekturik xumeenak abiapuntu hartuta bada ere. 'T' dantza hurbildu egiten zaio artisauaren, paletaren eta eskultorearen keinuari, baina dantza izaten jarraitzen du.

Maiatzaren 29, 30 eta 31an, **Group Holomater**, Berlinen bizi diren nazioarteko artisten diziplina anitzeko kolektiboak 'Sisybot' lana aurkeztuko du erakusketa aretoan. Bertan, sei 'Sisybots'-ek adimen artifizialari eta errealitate utopikoari buruzko gogoeta bultzatzen dute, eta gizarte-nortasunaren galerari egindako kritika gisa funtzionatzen dute.

Egun horietan ere, '**3, 2, 1 shout, oihu egin, grita**' elkarlanaren emaitza da, eta, irudi baten sorkuntza baino gehiago, 3, 2, 1en baitako sorkuntza lana da. 3 modutara aurkezten dute: bideo batean, irudi batean eta instalazio batean. **Sra. Polaroiska & Elsie Ansareo** artistek animalia izaerara, katarsira, jatorrira itzultzea proposatzen dute; guztion ezaugarri komuna den alderdi basati horrekiko topaketa.

Jarduera osagarrietako zentroa

Translation Ion Munduate egiten ari den ikerketa-proiektu baten izena da. Proiektua 3, 2, 1 topaketan gauzatuko da, hiru jarduera desberdinetan: tailer ireki gisa partekatutako esperientzia bat, hilaren 26tik 28ra bitartean; prozesu honi lotutako artistekin egingo den barneko lan-aldia, hilaren 28tik 31ra; eta



esperientzia honen amaieran, hilaren 31n, gonbit egingo digu lan-espazio hau partekatuzera, ikerketa honetako materialekin egingo den topaketara.

‘**Edging**’ eromen kolektiboari buruzko erritual pertsonal txikia da. Dantzaren bidez, Frantziatik heldu da AlhóndigaBilbaora **Guillaume Marie & Tazcorpen** eskutik.

Bastida Aretoa

Maiatzaren 28an **Marie-Caroline Hominalek** Master Class saio bat emango du bi orduz. Transformazioko gaiari buruz mintzatuko du eta arlo honetan sor daitezkeen arazoak azalduko ditu.

Maiatzaren 29an, **BMfB, Mugimenduaren Gaien Ministerio Federala**, Austriako ministeriorik gazteena da, eta, orain arte, mota horretako bakarra munduan, bere proiektu politikoa aurkeztuko dute lehen aldiz eta 3,2,1 foroan izango da.

Honako ekitaldi hau **INTPA Austriako Nazioarteko Dantza eta Performance Sarearen** laguntzari esker egingo da. **INTPA Tanzquartier Wien zentroaren barne dago eta BKA eta BMei erakundeek finantzatzen dute.**

Laborategi aretoa

3,2,1 Irratia hartuko du, topaketaren irrati ofiziala. Bertan, 3,2,1 topaketan parte hartuko duten artisten elkarrizketak egingo dira eta topaketaren informazioa



emango da. Maiatzaren 29tik 31ra izango da 17:00etatik 22:00etara EITBren laguntzarekin.

MOV-S

Nazioarteko sortzailtzaren testuinguruan, modu paraleloan, MOV-S programa egingo da, Bartzelonako Mercat de les Florsen ekimena. Bertan artisten eta dantza eta mugimenduko artearen antolatzaileen arteko elkartze eta lankidetzak bideak bultzatzen dira. Bere bostgarren edizioan, MOV-S proiektu nomada gisa proposatu da. Martxoan Galizian egin zen eta orain Bilbora heltzen da AlhóndigaBilbaok, Etxepare Euskal Institutuak eta Eusko Jaurlaritzak antolatuta.

Programazioaren, espazio publikoetako zuzendaritzaren, kulturaren kudeaketaren edo bitartekaritzaren 100 profesionalak, maiatzaren 30 eta 31an AlhóndigaBilbaon elkartuko dira konposizio tailerretan, baita zuzeneko arteen kudeaketa egiteko prototipoen eta Euskadin lan egiten duten artisten proiektu eszenikoen aurkezpenean ere. Bilbotik igaro ondoren, MOV-S 2014 Mexiko eta Txilera helduko da.

VK Comunicación

Para más información:
M^a José Sánchez Robles
Telf: 94 401 53 06
626 815 610

prensa@alhondigabilbao.com
mjsanchez@vkcomunicacion.com